+

1

Aire-sur-l'Adour (Landes). Hotel du Commerce.

Georges Lacombe jaunari. Paris'erat.

Agur, adiskide:

Baiona'tik galdegin dautate Durango'ko euskal-egunen berri: noiz izatu ziren, zoin urthez, egunez t.a.; nor-ta izatu giren mintzalari. Nik ez dut deusik gorde, ez orhoitzapenean, ez paperetan. Zu mintzalari izatu baitzinen, zuk baino xehetasun haboro ta hoberik nehork ez duela emaiten ahal erantzun dakot Arien jaunari. Galdetzera gogora ba lakio, egiozu, othoi, zerbitzu hori, nihauri bezala.

Milesker aitzinadanik. Muga on huntaz baliatuki, berritzen dautzut ene adiskidego minena.

Mikolas.

**EUSKALTZAINBURUGOA**
DIRECCIÓN DE LA ACADEMIA DE LENGUA VASCA
Teléfono 9723

BEIN-BEINEKO ETXEA
Domicilio provisional: **Ribera, núm. 18**
Uŕutizkiña 9723
**BILBAO**

30-4-28.

Jaun eta adiskide ona:

Atseginez igoŕiko dizut galdetu derautazuna. Papilio'ak izen guti ditu Nafaŕoan, bereziak. Ainik ere ba du bat, bertze nihon ageri ez dena: "axandaloa", Lekunbeŕin. Guk ere Uitzi'n (AN.) eŕaten dugu "axandaloa"; baino presuna buru-arin, txoraburu edo funts guti duenaz; ez papilioaz.

La Haye'ko biltzaŕeaz gutunto bat egin zidan Urkixo jaunak. Bera berotuxe baitzen, ni ere ene ozkiŕi hontarik elkhiko omen nintzen han izan banintz. ¡Naiko lan! Zuk adiarazi bide diotezu han bildu jakintsueri, euskal-egutegia aiputan hartzekoa dela. ¡Bejondaizula!

¡Atsegin dut biziki zuri gomenki au egiteaz.

Nahi duzun arte.

N. Ormaetxea.

Saubion'dik,1942'gaŕen urteko Otsailaren 9'gaŕeenean.

Mr. Georges Lacombe'ri. Paris'erat.

Aspaldiko adiskide:

Nive,Nivelle,ta Adour, direlako ibai horien euskal-izenak nahi nituzke jakin. Noizbait gure adiskide Elissalde jaunak eŕan zauzkidan,eta nihaurek ere irakurtu nituen azkaindaŕ Etcheberry'ren poema "Euscaldunac" delako hartan. Ez dut nere baitan zurea bezain liburutegi edeŕik,ez eta zure orhoitzapena ere gauza horietarako.

Erantzun idazu,othoi.

Eskeŕak ematen dauzkitzut aintzinadanik.

Beti adiskide

N. Ormaetchea

Presbytère,Saubion,(Landes)

4

Betharram'dik 1944-XII-8'gn.

Adiskide: Bizi zirea? Duzula bake ta osagarri lehengo Paris hortan. Jakin nahi nukezu "Revue Linguistique" argitarat emaiten denez eta ene artikulu bat agert othe lezakenez: "L'ordre des mots en basque et en latin". Hor ezin baledi, eradazu, othoi, bertze nun eman litaken. Irakurtu diotedan prantseseri lan jakingarria deritzoe.

Esker aintzinetik aitzinadanik.

Beraitz ere bake ta osagarri opa dauzkitzut.

Ormaetchea.

CAR




**EXPÉDITEUR**

Mr N. Irmaetcher

Collège Notre Dame

Lestelle-Bétharram

(B. P.)

**DESTINATAIRE**

Monsieur

Georges Lacombe

137 Boulevard St. Michel

Paris V.